LEGAZPIKO UDALA Gazteria Saila

2014-2015 ikasturteko Aisialdiko Begirale Ikastaroaren gaineko zehaztapenak

- **200 ordu teorikoez** gain, **120 orduko praktikak** egin beharko dira Eusko Jaurlaritzak **homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begiralea" titulua lortzeko**. Horrezaz gain praktiken inguruko **memoria bat** egin beharko da.

- **Aisiola**, Ikastolen Elkarteak emango du ikastaroa eta **euskaraz** izango da.

- **Arlo teorikoa**n landuko diren gaiak (200 ordu):

  - Aisialdiaren soziologia
  - Aisialdiko hezkuntza
  - Planifikazioa eta programazioa
  - Euskara suspertzailea
  - Hezkidetza
  - Euskal jolasak
  - Aisialdiaren pedagogia
  - Aisiari eta astiari buruzko psikologia
  - Osasunerako eta prebentzio komunitariorako heziketa
  - Kulturartekotasuna
  - Hezkuntza kontzeptua
  - Parte hartzea eta Heziketa aisialdian
  - Haur, gazte eta adinekoen aisialdirako dauden alternatiba hezitzaileak
  - Natura arloko pedagogia

  Metodologia aktiboa izango da: motibazioa; bizipen sistematikoa; esperientziatik ikasi; ekintza-hausnarketa-ekintza; talde lanak; pertsonen arteko harremanak; azterketa eta hausnarketa; tutoretzak; banakako lanak; ekintza konplexu eta elkar-lotuak; heziketa prozesuko arduradunen eta hezitzaileen arteko koordinazioa.

  Irakaslegoak aisialdirako teknikariak izateaz gain, urte asko daramatzate arlo honetan lanean eta esperientzia handia dute astialdiko hezitzaileen formazioan. Beraien profila hauxe da: hezkuntza alorrean eta soziologian diplomatuak eta lizentziatuak, euskaldunak, gazteekiko harremanetan eta prestakuntzan esperientziadunak, komunikaziorako eta taldea dinamizatzeko gaitasunarekin.

- **Arlo praktikoa** (120 ordu): Praktikak egiteko bi modu daude: 12 eguneko ekintza intentsiboa edo 3 hilabeteko jarduera jarraitua. Praktika horiek Aisiola eskolak eta Eusko Jaurlaritzak jarritako epeen barruan egin beharko ditu ikasleak.

- **Asistentzia derrigorrezkoa da**.

- Ikastaroa Legazpin egingo da (tokia finkatu gabe).

- Ikastaroan izena ematen dutenek **18 urte** izango dute edo **2015.urtean beteko dituzte.**

- **Legazpiko gazteei zuzendutakoa** da, nahiz eta plazak betetzeko edozein herrietako gazteek parte hartu ahal izango duten.

- Ikastaroa antolatzeko **gutxienez 20** lagunek eman beharko dute izena. **Gehienez**, berriz, **25** lagun.

- Ikastaroaren **matrikula 350 eurokoa** da. Prezio horren barruan ez da sartzen aterperainoko garraio-gastuak. Ordainketa epe bakar batean edo bitan egin daiteke. Udalak kargatuko du matrikularen diru-kopurua ABUZTUKO lehenengo 5 egunetan. Bigarren zatia berriz, ABENDUKO lehenengo 5 egunetan.

- **Egutegia: era estentsiboan asteburu eta opor garaiak** aprobetxatuz**.** Eranskina.

- Antolatzailea: Legazpiko Udala – Gazteria saila

LEGAZPIKO UDALA Gazteria Saila

Matrikulazioa:

- **Matrikulazioa hurrenkeraren arabera** izango da.

- **Uztailaren 14tik 24ra bitartean**.

- Legazpiko udaletxean dagoen **Herritarrentzako Arreta Bulegoan.**
  Ordutegia: **11:00etatik 15:00etara**.

- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa**:
  - **Legazpiko gazteek**:
    - Matrikulazio eskaera orria
    - Matrikula fitxa
    - NAren kopia
    - 3 argazki, atzetik izena eta abizenak idatzita.
    - 350 euro.Prezio horren barruan ez da sartzen aterperainoko garraio-gastuak. Ordainketa epe bakar batean edo bitan egin daiteke. Udalak kargatuko du matrikularen diru-kopurua ABUZTUKO lehenengo 5 egunetan. Bigarren zatia berriz, ABENDUKO lehenengo 5 egunetan.

  - **Beste herrietako gazteek**: **AURRE-MATRIKULA** egin beharko dute eta erantzuna uztailaren 24ean emango zaie. Onartuak badira matrikulazioa uztailaren 29ra arte egin beharko dute eta 375 euro ordaindu beharko dituzte.